

“Badakite egituratuta bagaude kultur normalizazioan indarra egingo dugula eta hori zapuztu nahi dute”

■ Juamari Larrantek uste du berriro halakorik ez gertatzeko bidea dela aurrera begirako diseinua egitea euskalgintza eta kultur gintza babesteko ■ Horretarako, “biltzen gaituen horrek” izan beharko luke hazia.

JUAMARI Larrantek Martin Ugaldeko bulegoan hartu du Kronika. Del Olmoren Autoa eta ordenadore pantaila ditu mahai gainean, bere ordenadorea Guardia Zibilak eraman duelako. Epaileak fiantzapean utzi du libre eta kontu pertsonalak ere blokeatu egin dizkio. Larrantek uste du Estatua epe luzerako diseinuarekin ari dela jokatzeko. Martin Ugalde Parkean, denera 240 langile inguru dabil.

■ Zer moduz zaude 5 egun inkomunikatuta edukita?

Orain ondo, buelta ematen. Bost egun horietako bizipena oso larria da: tentsio handiko momentuak, beti zaude Guardia Zibilaren eskuetan, eta inoiz ez dakizu zer gertatuko den hurrengo orduetan. Eta atea jotzen dizuten bakoitzean beldurra sartzen zaizu. Egia da, gure kasuan, bigarren egunetik aurrera konturatu ginenean tortura kasurik ez zegoela, ba, lasaitasuna ere etortzen da. Baina, orduan pentsatzen duzuna da kartzelara zoazela. Beti zaude etengabeko tentsio eta beldur batekin. Orain, pixkana buelta ematen ari naiz.

■ Epaileak trama finantzarioak, diru zuritzeak eta abar aipatu ditu. Larranteren ustez zer dago operazio horren atzean?

Nik uste dut nahi orokor bat dagoela euskalgintzako eta euskal kultur gintzako egitura sendoak direnak deusezteko. Nik bereziki izan ditudan interogatorioak oso lotuta egon dira Martin Ugalde Kultur Parkearen inguruan eta beti bukatzen zuten planteatzen: “eta



Juamari Larrarte, asteazkeneko omenaldian hizketan.

hau nola ordaintzen da, hau zeinek pagatzen du?” Orduan, emandako esplikazio guztiak, zer laguntza izan dituzun, nola egin duen aurrera, zein kreditu dauden, kreditu horien hipotekak nola dauden eta abar, ba, ez zuten esplikazio bezala ezertarako balio.

Epaileak momentu batean esan zidan: “kontatzen didazun guzti hori paperetan badago, baina, honen atzean zer dago? Eta esan nion, “dago zuk imajinatu nahi duzuna, ze horren atzean ez dago ezer”.

Tramaz hitz egiten ari direnean, uste dut badagoela interes bat desegiteko. Beraiek badakitelako estrukturaliki egituratuta baldin bagaude, indarra egingo dugula eta gero eta indartsuagoak izan gintzekeela euskararen normalizazioan eta kultur gintzan. Eta hori zapuztu nahi dute. Luzera begira horrelako estrategia baten barruan gaude.

■ Torrealdaiak aipatu du, kontuak blokeatuta, Martin Ugalde kultur parkea ixteko bidean utzi dutela. Nola dago gauza?

Berez ez du inon jartzen, baina, suposatzea da Martin Ugalderen inguruan erabaki berriak etorri beharko dutela. Buruntzapeko kontuak blokeatuta, eta epaileak atzera egin beharko du, edo administradore judizial bat jarri. Bestela, hilaren bukaeran ezingo dira soldatak ordaindu, eta hori praktikan enpresa ixtea da, prezintatu gabe.

■ Otamendik eskatu du babes afektibotik efektibora pasatzeko. Horrek zer esan nahi du praktikan?

Kontua da nola egin zurekin gaude esatetik denon artean harresia egitera, horrelako gehiago etorri ez dadin. Gaur eguneko gertatzen zaiguna da: *Egunkariak* gertatu da, sekulako manifestazioa egi-

ten dugu eta biharamunean galdetzen dugu “eta hurrengo zein izango ote da?” Galdera aldatu egin behar dugu: “Zer egin dezakegu hurrengo gertatu ez dadin? Kasu honetan, errexena galdera egitea da eta zailena erantzuna. Egia da nik ez daukadala erantzunik. Baina, egia da baita ere, euskaldunok kapaz bagara hainbeste mila lagun, hain kolore diferentetakoak zortzi hilabetean bi aldiz biltzeko, zerbaitek biltzen gaituela. Eta elkartzen gaituen horrek izan behar du hazia gero etorriko denarena. Hortik ikus dezagun zer egin euskalgintza eta kultur gintza babesteko, gutxienez.

Nere irudipena da hauek (Estatuak) egin behar dutela urte askotarako diseinua eta ez daukatela inongo presarik, nahiz eta guri ematen diguten inpresioa izan oso presaka dabilzala. Guk, berriz, ez daukagu diseinurik eta ari gara momentukoari erantzuten. Agian ikasi beharko dugu momentuko tragatzen, eta aurrera begira jarri.

■ Enpresa eta industria izaera errebindikatzen duzue, zein erreakzio jaso duzue enpresa erakundeetatik?

Oraingoaren berririk ez daukat. Egunkaria itxi zutenean izan genituen harreman batzuk, baina, horrek ez du ezer eman. Kultur enpresak bigarren mailako enpresak dira, baina, maila guztietan. Bankura zoazenean kreditu bat eskatzera kultur enpresa izaera oztopo bat da. Martin Ugalde Parkea egiten ari ginenean konturatu ginen *kultur* horrek oztopoak jartzen zizkigula mundu ekonomikoaren aurrean. □

Jubilatu Etxeak goiz pasa larunbatean

GOIZ Eguzki Jubilatu Etxeak goiz pasa antolatu du biharko. Nora joan, eguraldiaren arabera erabakiko dute. Ateera goizeko 10:00etan izango da, Jubilatu Etxean bertan. □

Andragotok asanblea

ANDRAGOTO Kultur Elkartek aurkezpen publikoa egingo du gaur. Ekitaldia arratsaldeko 20:00etan da Andragoton bertan eta aurkezpenarekin batera jendearen proposamenak ere bildu nahi ditu Andragotok. Interesatu guztiei azaltzeko dei egin die. □

Etxeberriko 'Lagun Artea'k 25garren urteurreneko afaria

ETXEBERRIKO Lagun Artea soziedadeak 25 urte bete ditu aurtan eta zilarrezko urteurrena azaroaren 8an ospatuko dute. Afaria 20:30etan izango da eta afalondonan Mus eta Tute txapelketako sariak banatuko dira. Afaltzera joan nahi dutenek soziedadeko tablan apuntatu behar dute, azaroaren 4a baino lehen. □

ZINEA BITERIN

Bi pelikula asteburuan

ASTEBURUKO bi pelikulak *La liga de los hombres extraordinarios* eta *Doraemon el Imperio Maya* dira. Gaur 22:30etan izango da emanaldia. Bihar umeena 17:00etan, eta helduena, 19:30 eta 22:30etan. □

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Ezabatze Eguna bihar

EUSKAL Herrian Euskarazek Ezabatze Eguna deitu du larunbaterako eta zita 11:00etan da plazan. Kalejira egingo dute EHEkoek eta kartelak jarriko dituzte ofizialtasunaren alde. □

PROKOLOR ZENTRUA
PL
Pinturas
Landaribar, s.l.
► Pintatzeko ekipoak
► Industri ta dekoraziorako pinturak
► Pintatutako paperak
Kardaberaz 45 - Telf.: 943 55 21 31 - Hernani

ADARRA
ETXE TRESNAK S.A.
Txirrita kalea 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

URGASKA, S.L.
Gas instalakuntza
Material salmenta
* Asistentzia teknikoak, gas eta berogintzan.
* Gas propano, butano eta naturala: mantenua
* Iturgintza
Aristizabal 9 Behea
Tel.: 943 33 37 40

ANTZIOLA TABERNA
"Mus azkarra"
ostiralean, 23:00etan
SARIAK:
1. 2 urdaiazpiko edo 12 txuleta + 2 langostino kaja + 2 txanpain bot.
2. 6 kilo kostila + 2 langostino kaja + 2 ardo botila
3. 2 koneju + 2 txanpain bot + 2 ardo bot
4. 2 txanpain botila + 2 ardo botila
INSKRIPZIOA: 12 euro bikoteko
ERREGULARITATEA: Hilabeteko puntuaziorik altuena 60 euro.
ANTZIOLA TABERNA
Antziola auzoa 1 - 943 55 54 99

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA
Eguneroko ogia
beti bikain
Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487
20120 Hernani



Pelota Txapelketako 3-4garren postua jokatu aurreko beroketan.

Bederatzi bikotek emango diote hasiera bihar 4garren Kronika Pelota Txapelketari

■ Lehen faseak otsailerarte iraungo du ■ Partiduak larunbat arratsaldetan dira.

KRONIKA eskupelota Txapelketa bihar hasiko da Tilo-setan, arratsaldeko 16:00etan. Bi partidu jokatu dira bihar: lehenengoan Etxabe eta Gurrutxagak Legarreta eta Ezeizaren kontra jokatu dute eta bigarren partiduan Gartzia eta Kijerak Urabayen eta Villarren kontra. Partiduak astero jokatu dira.

Bi fase eta finalak
Lehenengo fasea otsaila erdi aldera bukatuko da eta hor erabakiko dira bigarren fase-rako taldeak. Finala eta 3-4garren postuak ekainean jokatu dira San Joan festen bueltan. Aurten 4garren edizioa du Kronika Pelota Txapelketa eta txapelerako hautagai bat baino gehiago daude: batetik iazko

txapeldunak Legarreta eta Ezeiza eta iazko hirugarrenak, Zelaia eta Urdangarin. Txapelketaren mailak gora egin du, ordea, eta edonork eman lezake sorpresa. Beste bikoteak dira: Etxabe-Gurrutxaga, Gartzia-Kijera, Urabayen-Villar, Miner-Mitxelena, Aranburu-Artola, Miranda-Goya eta Apezetxea-Sanchez. □

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Estitxu Eizagirrek eta Unai Agirrek final laurdenetako saioak asteburuan

■ Bihar, Oñatin, 17:00etan: Eizagirre, Elustondo, Iban Urdangarin, Izagirre, Uranga eta Sukia ■ Agirrek kantatuko du igandean, Ordizian.

GIPUZKOAKO Bertsolari txapelketak ekin dio berriz ere eta final laurdenak jokatu dira azaroaren 9ra arte. Fase honetan 30 bertsolari kantatuko dute eta 6 Hernaniko bertso eskolakoak dira: Estitxu Eizagirre, Joxe Luis Urdangarin, Iker Osa, Aritz Zerain, Agin Rezola eta Unai Agirre fase honetara zuzenean sartu dena.

Aurreneko bi saioak larunbatean eta igandean jokatu dira, Oñatin eta Ordizian. La-

runbatean honako bost bertsolari arituko dira Estitxu Eizagirrekin batean: Nerea Elustondo, Iban Urdangarin, Iñigo Izagirre, Xabier Sukia eta Jokin Uranga. Saioa 17:00etan da, Santa Ana Antzokian (Udaletxe inguruan).

Igandean, Unai Agirreraren txanda izango da eta honako hauek izango ditu kontrario hernaniarrak: Alfontso Jimenez, Unai Muñoa, Iker Zubeldia, Felix Zubia eta Leire Ostolaza.

Aurrenekoa zuzenean pasa
Final laurdenetan bost saio dira eta saioan aurrenekoa zuzenean pasako da finalurrekoetara. Gainerako zortziak puntuazioz pasako dira. Fase honetan, saio guztietan epaile berak ibiliko dira.

Sandiusterrin, azaroaren lein
Hernanin azaroaren lein jokatu da final laurdeneko saioa. Besteak beste Joxe Luis Urdangarin eta Agin Rezolak kantatuko dute, 17:00etan. □

ESKOLA KIROLA				ASTEBURUKO PARTIDUAK			
Errugbia	Taldeak	Non	Noiz	Pelota			
Benjam inak 4	Unum ea D - Elizabto B	Kio Ilegia	B har09:15	A lebinak	Unum ea B - Elizabto B	Kio Ilegia	B har15:00
Benjam inak 4	Im acubada-Unum ea A	Kio Ilegia	B har10:00	A lebinak	Langile C - Txineta	Kio Ilegia	B har15:10
Benjam inak 4	Langile C - Elizabto A	Kio Ilegia	B har10:45	A lebinak	Unum ea D - Unum ea A	Kio Ilegia	B har15:20
Benjam inak 3	Langile A - Langile B	Kio Ilegia	B har11:15	A lebinak	Langile B - Langile E	Kio Ilegia	B har15:30
Benjam inak 3	Langile C - Unum ea A	Kio Ilegia	B har11:30	A lebinak	Langile A - Elizabto A	Kio Ilegia	B har15:40
Benjam inak 3	Unum ea B - Elizabto B	Kio Ilegia	B har12:00	B o lebo la			
Benjam inak 4	Langile A - Unum ea B	Kio Ilegia	B har12:15	A lebinak	Elizabto - Lizeo tanak B	Donostia	
Saskibaloia				A lebinak	Sto Tom as - Elizabto	Donostia	
A lebin m utilak	Im acubada - Langile	Kio Ilegia	B har09:45	Infantilak	Lizeo tanak - Langile	Donostia	
A lebin neskek	Unum ea - Eskabala	Kio Ilegia	B har09:15	Futbola			
A lebin m utilak	Elizabto A - Unum ea A	Kio Ilegia	B har10:15	Infantilak	Langile - H ijas de a C uz	Zubipe	B har09:00
A lebin m utilak	Unum ea B - Elizabto B	Kio Ilegia	B har10:15				
A lebin neskek	O rke A - Langile	Donostia					

■ HITZ BITAN



Karmen Susperregi, berak bildutako onddo haundia eskuetan duela.

✓ PERRETXIKO GARAIA

Kilo eta erdiko onddoa. Karmen Susperregi ereñotzuarra ia kilo eta erdiko onddoa bildu berri du Akola inguruan. Onddo zuriak 1.400 gramo pasa pisatu ditu jaso berritan. Zuztar batetik bi ateratzen ziren eta bi txapela zituen onddoak, eta dagoeneko pixka bat hondatzen hasia zegoen.

✓ MENDIRIZ MENDI

Diapositibak aurkezteko azken eguna gaur. Mendizale Astearen barruan diapositiba lehiaketa antolatu du Mendiriz Mendik eta gaur da aurkezteko azken eguna.

✓ EREÑOTZUKO KULTUR ASTEA


Patxin eta Potxin pailazoak gaur. Ereñotzuko kultur astearen barruan pailazoak izango dira gaur, plazan, arratsaldeko 18:00etan. Patxin eta Potxinek ahaleginak egingo dituzte umeen irriparra eragiten.

✓ OMENALDIA

Joxan Pagola eta Gabino Etxeberriari omenaldia.

Bihar larunbata omenaldia egingo zaie Joxan Pagola *Beltza* eta Gabino Etxeberriari, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta. Joxan Pagolak 19 urte egin ditu espetxean eta joan den ostiralean utzi zuten aske. Gabino Etxeberria abuztuaren 14an gelditu zen aske, kartzelan 7 urte eginda. Omenaldia, bihar, 20:00etan, Tilo-setan.

Atzo bestalde, Joxan Pagola izan zen 3/4 plataformaren kontzentrazioan eta kondenaren hiru laurdenak beteak dituzten preso hernanirrak askatzea eskatu zuen.



Pagola argazkia pankartatik kentzen.

✓ AEK EUSKALTEGIA

Bideo forumaren jarraipena gaur. Iaz hasitako bideo forumari jarraipena emango dio AEK euskaltegiak gaur eta *El dulce porvenir* pelikula botako dute, 19:30etan AEK euskaltegian bertan. Atom Egoyanek zuzendutako filma da eta Canneseko zinemaldia eta Valladolideko jaialdiko sari nagusiak jaso ditu pelikula honek. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ☎ Taxiak: 943 550093
- ☎ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☎ DYA: 943 464622
- ☎ Autobusak: 943 556662
- ☎ Anbulatorioa: 943 006666
- ☎ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ☎ Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
- ☎ Gauzez: Iturralde Usurbil. Poligono 13, 9 ☎ 943 363395

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 943 55 27 79

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko, goiz eta arratsalde: 07:30etatik 11:00etara eta 16:30etatik 19:00etara : 658 73 88 32 (iluntzean)